



Arartekoaren 2024R-2428-24 Ebazpena, 2024ko azaroaren 19koa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari gomendatzen zaio ondorioz gabe utz ditzala trafikoko araudia urratzeagatik jarritako hiru zehapen.

Aurrekariak

1. Herritar batek kexa aurkeztu du Arartekoan, Segurtasun Sailak jarri zizkion hiru zehapeni lotuta. Baimendutakoa baino abiadura handiagoan joateagatik jarri zitzaizkion zehapen horiek, 2022ko abenduaren 13, 15 eta 24an, radar finko batek harrapatu ostean. (Trafikoko zehapen-espeditenteak: 90/XXX, 90/YYY eta 90/ZZZ).
2. Kexa-idazkiaren bidez adierazi zuen ez zegoela zehapenekin ados, ez zuelako zehapen-prozeduren berri izan ordaintzeko errekerimendua jaso zuen arte (premiamendu-probidentzia). Interesdunak adierazi zuen zehapen-prozeduren gaineko jakinarazpenak okerreko helbidera bidali zirela.
3. Kexa onartu eta aztertu ondoren, Arartekoak Sailari eskatu zion kexan azaltzen diren gaiei buruzko informazioa emateko eta zehatzeko administrazio-espeditenteen kopia bat helarazteko.

Informazio gehiago eskatu ondoren, Sailak zehapen-espeditenteak bidali zituen, baita Trafiko Zuzendaritzaren Lege Zerbitzuaren txostena ere. Hain zuzen, txostenean hau azaltzen zen:

“2.- Arau-hauste horiek egun ezberdin eta ibilgailu ezberdinekin egin ziren.

3.- Nahiz eta ibilgailu ezberdinak izan, erregistroan inskribatutako epe luzerako errentaria XXX SL da kasu guztietan.

4.- Abiadurako arau hausteetan erantzulea gidaria da. Hori dela eta, XXX SL enpresari gidaria identifikatzeko errekerimendu bat bidali zitzaion arau haustearen gidaria identifikatzeko. Enpresak XXX gidaria identifikatu zuen, eta prozedura zehatzailea jarraitzeko eta hurrengo jakinarazpenak egiteko hurrengo helbidea adierazi zuen: YYY kalea, 10, 1º B.

5.- Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 90. artikulua ezartzen du salaketan jakinarazpenak egiteko jardunbidea.

Hala, artikulua ezartzen du jakinarazpenak interesdunaren Bide Helbide Elektronikoan (BHE) egingo direla, eta, “salatuak Bide Helbide Elektronikorik ez badu, prozedurarako berriaz adierazi duen egoitzan egingo zaio





jakinarazpena, edo, halakorik ez bada, Trafiko Buruzagitza Nagusia organismo autonomoaren erregistroetan jasota dagoen egoitzan”.

Kasu honetan, interesdunak (une horretan XXX SL zena) jakinarazpenak egiteko helbide gisa YYY kalea 10, 1. B adierazi zuen.

Hori dela eta jakinarazpenak helbide horretara bidali ziren.

6.- Jakinarazpena egiten saiatu ziren guztietan, Correosen frogagirian jasotako emaitza "kanpoan" da.

Posta-zerbitzu unibertsalari, erabiltzaileen eskubideei eta posta-merkatuari buruzko abenduaren 30eko 43/2010 Legeak 22.4 artikuluan ezartzen duenez, “izendatutako operadorearen jardunak egiazkotasun- eta sinesgarritasun-presuntzioa izango du administrazio organo eta organo judizialen jakinarazpenak banatu, entregatu, jaso edo ukatzeko edo entregatzeko ezintasunean gertatutako gorabeheretan, bai baliabide fisikoen bidez egindakoak, bai bide telematikoen bidez egindakoak (...)”.

Beraz, Trafiko Zuzendaritza honek egiazkotzat jotzen ditu Correos-en egiaztagirietan jasotako gertakariak. Interesduna ez badago ados bere helbidean egindako jakinarazpenen emaitzarekin, haren posta-bulegora joan daiteke egoki deritzon azalpenak eskatzeko.

7.- Correoseko langileak frogagirian “ezezaguna” emaitza jaso izan balu, Trafiko Zuzendaritzak beste ahalegin bat egingo zuen Gidarien Erregistroan agertzen den helbidean entregatzeko, lehen aipatutako legearen 90. artikuluan jasota dagoen bezala (interesdunak adierazitakoaren ordezkotza helbidea). Hala ere, “kanpoan” emaitza agertu zenez, iragarkiak BOEn argitaratu ziren, Trafikoari buruzko Legearen 90. eta 91. artikuluetan ezarritakoaren arabera. 8.- Behin BOEn argitaratuta eta nahitaezko epeak igaro ondoren, espedienteak irmo bihurtu ziren eta betearazpen-bidera igaro ziren.

8.- Behin BOEn argitaratuta eta nahitaezko epeak igaro ondoren, espedienteak irmo bihurtu ziren eta betearazpen-bidera igaro ziren.

(...)

10.- Posta-jakinarazpenetatik eratorritako arazoak saihesteko, hainbat irtenbide daude:





Lehenik eta behin, interesdunak alta eman dezake Bide Helbide Elektronikoan, trafikoko jakinarazpen guztiak telematikoki jaso ditzan.

Bigarrenik, interesdunak Eusko Jaurlaritzarekin harreman telematikoak izatea aukera dezake, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko "nire karpeta"ko arlo pertsonalean alta emanda. Horrela, Eusko Jaurlaritzak egin nahi dizkion jakinarazpen guztiak, trafikokoak barne, telematikoki iritsiko zaizkio.

Era berean, interesdunak egiaztatu beharko luke zein den enpresa errentariarekin sinatutako kontratuan agertzen den helbidea, enpresak eman baitzion Trafiko Zuzendaritzari jakinarazpenak egiteko helbidea.

Azkenik, interesduna inskriba daiteke gidatzen dituen ibilgailuen ohiko gidari gisa Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren (TZN) ibilgailuen erregistroan. Horrela, ibilgailuak arau-hausteren bat eginez gero, ibilgailuaren errentariari identifikatzeko errekerimendua bidali beharrean, zehapena zuzenean bidaliko litzaioke ohiko gidari gisa inskribatuta dagoen interesdunari, TZNren erregistroetan agertzen den helbidean."

Txostenak hau ondorioztatzen du: *"Espedientea izapidetzean Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina den 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren legezko aurreikuspenak jarraitu dira, eta arau-haustea gauzatu egin da."*

4. Beharrezkoak diren zuzenbideko oinarriak eta gertaerak daudela ulertuta, hona hemen Arartekoaren

Gogoetak

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren (aurrerantzean, Trafikoaren legea) 11.1 a) artikulua xedatzen du ibilgailuaren titularrak betebeharrak hau duela:

"Arau-haustea egin den unean ibilgailuaren gidaria zein izan den jakinaraztea Administrazioari. Besteak beste, gidabaimenaren edo gidalizentziaren zenbakia jakinarazi beharko du, Trafiko Burutza Nagusia organismo autonomoaren Gidarien eta Arau Hausleen Erregistroan identifikatu ahal izateko.

Gidarien eta Arau Hausleen Erregistroan inskribatuta ez badago gidaria, titularrak Espainian gidatzeko gaitzen duen administrazio-baimenaren kopia





izan behar du, eta Administrazioari eman beharko dio, hala eskatuz gero. Titularra gidaririk gabeko ibilgailuak alokatzeko enpresa bat denean, administrazio-baimenaren kopiaren ordezkari errentamendu-kontratuaren kopia eman daiteke.”

Bestalde, Lege horren 77 j) artikulua arau-hauste oso astuntzat hartzen du: *“Arau-hausteren bat egin duen ibilgailuaren titularrak edo errentariak arau-haustearen erantzulea den gidaria egiaz identifikatzeko betebeharra ez betetzea, hala egiteko behar bezala eskatzen zaionean ezarritako epean. Gidaririk gabeko ibilgailuak alokatzeko enpresen kasuan, gidaria identifikatzeko betebeharra betetzeko, 11. artikuluan aurreikusitakoa beteko da.”*

Beraz, ibilgailuaren titularrak gidari moduan identifikatu zuen bere burua baina, horrez gain, eta froga modura, bere gidabaimenaren edo gidalizentziaren zenbakia ere eman zuen, Trafiko Burutza Nagusia erakunde autonomoaren Gidarien eta Arau-hausleen Erregistroan identifikatu zezaten.

Horri esker, enpresak gidaria identifikatu zuen: izen-abizenak, gidabaimenaren edo gidalizentziaren zenbakia eta helbidea. Halaber, gidaria bera gidarien erregistroan inskribatuta zegoela jakinarazi zen.

Segurtasun Sailak, txostenean, Trafikoaren Legearen 90. artikulua aipatzen du, *“Salaketak jakinarazteko jardunbidea”,* eta, gero, hau azaltzen du: *“Kasu honetan, interesdunak (une horretan XXX SL zena) jakinarazpenak egiteko helbide gisa YYY kalea 10, 1. B adierazi zuen. Hori dela eta jakinarazpenak helbide horretara bidali ziren.”*

Dena den, kontuan izan behar da kasu honetan bi prozedura desberdin daudela.

Lehenengoaren bidez gidaria identifikatu nahi da, eta ibilgailuaren titularrari zuzentzen zaio. Bera izan da prozeduraren interesduna. Gainera, identifikatzen ez bada edo gaizki identifikatzen bada arau-hauste oso astun baten egiletzat har daiteke.

Bigarren prozedura gidaria identifikatu ostean hasi da. Unean bertan ematen ez diren salaketei eta zehapen-prozeduren ondorioz egin beharreko jakinarazpenei buruzkoa da. Kasu honetan, interesduna ibilgailuaren gidaria da.

Trafikoaren Legearen 90.1 artikulua hau ezartzen du:

“1. Trafiko-arloan eskumen zehatzaileak dituzten administrazioek zirkulazio-helbide elektronikoan (ZHE) jakinaraziko dituzte unean bertan ematen ez diren salaketak eta zehapen-prozeduran sortzen diren gainerako jakinarazpenak.





Salatuak Bide Helbide Elektronikorik ez badu, prozedurarako berariaz adierazi duen egoitzan egingo zaio jakinarazpena, edo, halakorik ez bada, Trafiko Burutza Nagusia organismo autonomoaren erregistroetan jasota dagoen egoitzan."

Eta Lege horren 91. artikulua beste hau: *"Zirkulazio-helbide elektronikoan (ZHE) eta, horrelakorik eduki ezean, prozedurarako berariaz adierazitako egoitzan edo, egoitzarik adierazi ezean, Trafiko Burutza Nagusiaren erregistroetan ageri den egoitzan egin ezin daitezkeen jakinarazpenak Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) egingo dira."*

Era berean, adierazi behar da ibilgailu baten gidabaimen edo gidalizentziaren nahiz zirkulazio-baimenaren titularren betebeharra dela, Trafikoaren Legearen 60.1 artikulua araber, Trafiko Burutza Nagusia erakunde autonomoaren erregistroetan jakinaraztea zein den bere helbidea, hori erabiliko delako dituen baimen guztiei lotutako jakinarazpenak egiteko. Ondorio horietarako, gainera, udalek eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziak jasota dituzten helbide berriak jakinarazi ahal dizkiote Trafiko Burutza Nagusia organismo autonomoari.

Enpresak emandako posta-helbidea (YYY kalea, 10. zk., 1 B) ez dator bat Trafiko Burutza Nagusiko gidarien erregistroan jasota dagoen eta Segurtasun Sailak kontsultatu zuen horrekin (YYY kalea, 9. zk., 1 B); horrela agertzen da erakunde honetara bidali ziren 90/XXX eta 90/YYY espedienteen 12. folioan eta 90/ZZZ espedientearen 13. folioan.

Hori gorabehera, enpresa errentariak emandako helbidean egin zituen Administrazioak jakinarazpenak, eta ez gidarien erregistroan agertzen zen helbidean. Beraz, Correos enpresak adierazi zuenean hartzailea ez zegoela, benetan jasota utzi behar zuen helbide horretan hartzailea ezezaguna zela, interesdunak aurkeztu duen erroldako ziurtagiriaren araber YYY kalean (9. zk., 1 B) dagoelako alta emanda 2004ko maiatzaren 12tik. Arau-hausteak 2022. urtekoak dira.

Administrazioak egiazkotasun-presuntzioa alegatu du adjudikatutako operadorearen jarduketari lotuta, posta-zerbitzu unibertsalari buruzko abenduaren 30eko 43/2010 Legearen 22.4 artikuluan ezarritakoaren araber. Horri dagokionez adierazi behar da, lehenbizi, ez dakigula zertan oinarritu den langilea interesduna ez zegoela jasotzeko; agian norbaitekin hitz egin zuen etxebizitzakoen gaineko informazioa eskatzeko. Bigarrena: aipatu Legean ezartzen den presuntzioa *iusuris tantum* da, hau da, bertan behera geratuko da modu objektiboan egiaztatu diren egitatezko gertaeren bidez beste ondorioren bat ateratzen bada.





Hori gertatu da kasu honetan, hain zuzen. Helbidea ez dator bat gidarien erregistroan jasota dagoenarekin, eta azken hori erabili behar izan zen kasu honetan jakinarazpenak egiteko.

Helbide desberdinak daudela ikusita, Administrazioak automatikoki enpresak jakinarazitako helbidearen alde egin du, nahiz eta judizio-elementu nahikoa izan ondorioztatzeko hiru zehapen-prozedurak hasteko jakinarazpenak okerreko helbidera bidali zirela.

Erakunde honen ustez, egoerak ez zuen inola ere Administrazioa nahasi behar; erregistro ofizialean kontsultatu zuen helbidea, eta bertan egin behar izan zituen jakinarazpenak, arestian aipatu diren manuetan ezarritakoa kontuan hartuta.

Arartekoaren iritziz, enpresa errentariak jakinarazpenak okerreko helbidean egin izana ezin zaio interesdunari egotzi, honek ez baitu okerrik egin. Gainera, akats horrek ezin dio kalterik eragin erregistro ofizialean jasota dagoen gidariaren helbidea kontuan ez hartzeraino, batez ere hark beteta zuelako, lege ezarrita dagoen moduan, Trafiko Burutza Nagusia erakunde autonomoaren erregistroetan bere helbidea jakinarazteko betebeharra.

Kasu honetan, Administrazioak ez zuen izan eska daitekeen gutxieneko ardura zehapen-prozeduren ediktu bidezko jakinarazpenera jo baino lehen, nahiz eta jakin gidarien erregistroan interesdunaren helbide moduan agertzen dena beste bat dela.

Azken batean, aurretik egindako jakinarazpen akastun bat oinarritzat duten ediktu bidezko jakinarazpenak ezin dira baliozkoak izan, deusezak baitira.

Hain zuzen ere, Konstituzio Auzitegiaren iritziz, ediktu bidezko jakinarazpena egitea azken aukera da, ordezkoa eta salbuespenezkoa, eta, hura erabiltzeko, alde aurretik, agortu egin behar dira jakinarazpenaren hartzailearekin harremanetan jartzeko eta, ahal dela, jakinarazitako egintza jasotzen duela ziurtatzeko modalitate egokiak, muturrera eramanda ohiko bideetatik pertsona hori non dagoen ikertzeko izapideak. Halaber, jakinarazpena ediktu bidez egiteko erabakiak arrazoizko irizpideetan oinarritu behar du, eta ziur egon behar da, edo, gutxienez, uste sendoa izan behar da, alferrikakoa dela zitazioa egiteko ohiko baliabideak erabiltzea. Hortaz, administrazioari gutxienez eska dakizkiokeen eginbideen baitan sartzeko, ediktu-bidera jo aurretik, jakinarazpena beste erregistro publiko batzuetan ageri den helbidean egiten saiatzea.

Arartekoak bere ebazpen batzuetan aukera izan du jakinarazpenetan bermeak eskatzeari buruzko iritzia emateko. Ebazpenetan azaldu zuen ediktu bidezko jakinarazpenak, benetako jakinarazpen izaera baino, lege-fikzio izaera duela. Jurisprudentziak etengabe azpimarratu du hori, eta nabarmendu du Administrazioak





jakinarazpenen arloko arauan ezarritako formalitateak bete eta bere esku dauden arrazoizko aukera guztiak agortu behar dituela, jakinarazpenaren hartzailearekin harremanetan jartzeko.

Ez dago zalantzarik, beraz, ediktu bidezko argitalpena azken aukera izan behar dela, Administrazioak jakinarazpenen arloko formalitateak behar bezala bete dituztenean eta helbidea ikertzeko eska daitekeen gutxieneko eginbidea gauzatu duenean.

Beraz, ediktu bidezko jakinarazpena akastuna dela esan daiteke, ez delako saiakerarik egin Administrazioak gidarien erregistroan kontsulta egin ostean ezagutzen zuen beste helbidean. Hots, ediktua aldizkari ofizialean argitaratu baino lehen gidarien erregistroan agertzen zen helbidean (zehapen-espeditateetan agertzen dena) jakinarazteko ahalegina egin behar zuen, Administrazioak berak eskatu zuelako informazio hori.

Azken buruan, Administrazioak hau adierazi zuen: *“interesdunak egiaztatu beharko luke zein den enpresa errentariarekin sinatutako kontratuan agertzen den helbidea, enpresak eman baitzion Trafiko Zuzendaritzari jakinarazpenak egiteko helbidea”*; baina hori ezin da baliozkotzat hartu, benetan egiaztatu behar dena baino. Eta hori ezin da hartu Administrazioari eskatzen zaion arduraz ez jarduteko aitzakia moduan, interesduna babesik gabe utzi baitu egoera horrek.

Horri lotuta, Arartekoak azpimarratu nahi du Trafikoaren Legearen 83.1 artikulua hau ezartzen duela berariaz: *“Kapitulu honetan eta, ordezkoko moduan, administrazio-prozedura erkideari buruzko araudian xedatutakoarekin bat etorriz bideratutako prozedura betez baino ezin da zehapenik ezarri lege honetan tipifikatutako arau-hausteengatik.”*

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Azaldutako guztia aintzat hartuta, ondoriorik gabe utz ditzala kexagileari jarritako zehapenak, eta ordaindutako zenbatekoak itzultzeko erabaki dezala.

